

GREENWEAVE

Gaur egun, sare sozialak eta gizarte globalizatua direla eta, modak jarraitzeko presioa nabarmena da, batez ere gazteon artean. Fast Fashiona (denboraldi bakoitzeko moda azkarra) bezalakoekin arropan diru asko gastatzen dugula ikusteaz gain ingurumenean sortzen dugun kaltearekin topo egin dugu, izan ere, gure arropan erabilitako oihak eta materialak ez dira naturan desagiten. Bestalde, aldaketa sortu dezakeen belaunaldia garela sinisten dugu, txiki-txikitatik arazoaren jakitun egin zaigulako eta baliabideak ditugulako ahal dugun heinean ingurumena zaintzeko. Baina, nola jarrai dezakegu kontsumitzen ingurunean kalterik eragin gabe?

Aurretik aipatutakoari irtenbide bat eman nahian GreenWeave sortu dugu; Euskal Herriko lehen arropa biodegradagarri marka. Material naturalak oinarri dituztelarik, hala nola, laranjak (Don Simon), sagarrak (Zapiain Sagardotegia), egurra (Muebles Lufe), esnea (Goenaga) edota ura, gure produktuek sortzen dituzten hondakinak minimoak dira. Ideia berezi hau da gure konpetentziarengandik bereizten gaituena, izan ere, dagoeneko badaude arropa material natural edo birziklatuetaz sortzen duten markak, baina, gureak jatorri naturala izateaz gain, urte gutxi batzuetan deskonposatzeko ahalmena du.

Hau guztia egin ahal izateko, lehenik gure zientzialari taldeak material nahasketak sortuko ditu eta hauekin oihak ezberdinak. Ondoren, lehengaiak kantitate handietan produzitzeko mailan lortu beharko ditugu eta hauek material naturalekin ibiltzen diren negozioen eskutik lortuko ditugu (aurretik aipatuak); era honetan haiek hondakinetaz desagiteko ordaindu behar dutena aurrezten dute eta guk lehengaiengatik ordaindu beharko genukena. Hala, lehengaiak eskainiko dizkiguten enpresak gure bazkide izango dira. Amaitzeko, garai bakoitzeko hondakinak eta modak ezberdinak izango direnez produktu baten ale kopuru mugatu bat sortu eta gure web orrian jarriko dugu salgai. “Drop” direlakoetan aterako ditugu produktu berriak eta era honetan gure bezeroak aterako dugunaren zain egongo dira eskusibitate puntu bat hartuz. Hala ere, maila ekonomiko guztietarako eskuragarriak diren produktu sinpleagoak eskaini nahi ditugu ere; azken finean gure helburua ingurumenean kaltea murriztea delako eta zenbat eta jende gehiagok gure produktuak erosi orduan eta oihak-hondakin gutxiago egongo delako.

Enpresa hau egituraz sozietate mugatu bat izango da, hau da, bazkide edo sortzaile talde bat izango du (sorkuntzarako kapitala edo oinarritzko jakinduria eskaini dutenak) eta beste alde batetik gainontzeko langile guztiak egongo dira. Sozietate mugatu moduan lan egitea erabaki dugu batetik, lagun talde bat izatean konfidantzaz lan egitea errazagoa delako eta bestetik, enpresaren partizipazioak saldu ahal izateko besteen baimena behar dugulako; era honetan enpresaren balore eta oinarriak mantentzea ziurtatzen dugu. Langileen soldatak hasiera batean finkoak izango dira beti ere betetzen duten postuaren zailtasunaren arabera antolaturik daudela eta enpresan denbora asko ematen duten horiek aurrerantzean soldata igoerak eduki ditzakete.

Eremu geografikoari dagokionez nazionalki hasiko gara kostuak ahalik eta baxuenak izan daitezen eta gure enpresaren arrakasta era moderatuan neurtu ahal izateko. Alabaina, gure helburua ahalik eta gehien zabaltzea da eta zenbat eta irabazi altuagoak izan orduan eta herrialde gehiagotara zabaltzea

pentsatu dugu. Era honetan ingurumenean kalte handia sortzen duten enpresen mailan jarriko ginateke eta ingurumeneak edukiko genukeen eragin positiboa nabarmena izango litzateke. Banaketak ahalik eta gutxien kutxa dezan almazenak ditugun hirietan banaketak bizikletaz egingo dira eta urrutiagokoak Seur enpresaren bitartez banatuko dira.

Kostu egitura orokorrean edozein beste enpresarena bezala izango da kostu finko ohikoekin (soldatak, aseguruak, bestelako zerbitzuak...) eta kostu aldakor ohikoekin ere (garraio elementuak, makinaria...). Hala ere badaude gure enpresak dituen berezitasun batzuk: Alde batetik hasierako inbertsioa normalean baina handiagoa izan beharko da ikerketa lanak direla eta. Bestalde, lehengaiengatik ordaindu beharko duguna oso gutxi izango da, izan ere, ostalariei mesede bat egiten diegu. Aurretik aipatutako lehen inbertsio horrek handia izan beharko duenez, bazkide talde bat sortuko dugu eta proiektuan dirua inbertitzearen truke enpresan akzioak lortuko dituzte. Era honetan enpresak izena indartu eta hau zabaltzen denean haien dirua bueltan eskuratuko dute.